



Zarateko etxia eta San Anton kalia edurpeian

Zarateko etxia? Nun dago hori? galdetuko dau batek baiño gehixagok, gaztiak batez be. Egixa esateko, argazkixaren lehenengo planuan dakotzuen etxetzar horri hamaika izen ifiñi izan xako: **Bergantzo** etxe moduan ezagutu zan XV-XVI. gizaldittan; gero, luzaruan herriko jauntxo izan ziran Zaratekarrak bizilekutzat euki ebeillako, **Zaratekua** esan xakon XVIII. mendetik aurrera-edo, eta izen horrekin heldu xaku ixa gaur egunera arte; gerra ostian Aitzeko familixiak (Agirrezabaldarrak) etxe horretan janari-dendia jarri eben, eta horregatik **Aitzekua** izenez be ezagutu izan dogu urte askuan. Goititik begiratuta **U** itxuria dakon eraikuntza haundi honetan beste salerosketa- eta zerbitzu-leku batzuk be kokatu dira azkenengo berrogetamar urte honeittan: taberna, aurrezki-kutxa, antxiñako gauza-denda, e. a.; oraintxe be informatika-dendia eta ikaslekua dagoz bertan. Baiña aurretik bestelakorik be egon zan: esate baterako, monja beneditarrak, 1905ian Frantziatik erdi-igesixan Oñatira etorri ziranian, etxe honetantxe izan ebein lehenengo komentua, 1928xan Altzibarreko kolejixo eta egoitza barrira aldatu ziran arte. Hori dala-eta, artian oñatiar batzuentzat beneditinak **Zarateko monjak** dira.

Kanpotik etxiaren egitturiak begi-golpe batera lehenetan jarraitu arren, ondo erreparau ezkerro, badittu aldaketa banaka batzuk: aurreko partian, orain hiru ate, eskaparatia eta bi bentana dagozen behekalde horretan ate bakarra, lau bentana haundi eta txiki bat agiri dira. Dana dala, ondo begiraketan badogu, ate nagusixaren arku gotikua garbi samar igarri geinke; estalitta dago, eta atiaren orde leixo batekin. Orain dendiaaren eskaparatia moldaitten dauen beste arkuak, ostera, barrixa dala emuten dau. Noiz zabaldu ete ziran arku bixok? monjak komentutarako ebali ebein sasoian, honeik alde egin ebeñian ala dendia eta kutxia jarri ziranian? Seguruenik izango da Oñatin hori dakixenik. Dendarako atia egitterazkuan, ezkerredian agerketan dan bentantxua be galdu egin zan. Eraikuntza honetako beste horma batzuetan orainddiok ikusten diran beste bentanatxo batzuen tankerakua da; Erdi Aroko itxuria dakoi eta etxiaren aztarrenik zaharrenak izango dittugu, biharbada.

Gaiñetikuan, esan daigun San Antue kale aldiñ be eztala kanbixorik falta. Ezkerretan dakogun **Gaiñeneko** etxiari 1958xan barrikuntza sakona egin xakon; **Txaiñena** 1974an bota egin zan; eta **Larrastegikua** da lehengo antzera daguena. Baiña horrein gaiñian hurrengo batian astiruago eskribittia pentsaitten dogu.

J. E.
Fotografixia Martin Zuluetak mende honen hasieran ataratakua da. Argibide batzuk Xabier Zelaiari zor xaugu.